

### Anoetako Udalean Bake Epaile Titularra eta Ordezkoa hautatzeko deialdia.

Botere Judizialeko Lege Organikoaren 99 – 103, 302, 303 eta 309 artikuluek eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduak xedatutakoa betez, Anoetako Udalean Bake Epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko deialdia egiten da.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik 15 lanegunetako gehieneko epea zabaltzen da, Anoetako Bake Epaile Titularra eta Ordezkoa izateko interesa dutenek eta legeak jarritako baldintzak betetzen dituztenek idatziz eskaera aurkeztu dezaten udaletxeko idazkaritzan, bulego ordutegian: 9.00 – 13.00 bitartean.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udaltzak Bake Epaile titularra eta ordezkoa aukeratu dituzten artean, beti ere, ezarritako legezko betebeharrak betetzen badituzte. **AZKEN EGUNA: 2017ko MAIATZAREN 25 (osteguna).**

#### **KARGUAREN EZAUGARRIAK:**

- Iraupena: 4 urte.
- Ordainketa urtean: 1.083,56 euro.

#### **BETEBEHARRAK:**

- Espainiarra izatea.
- Adinez nagusia izatea.
- Botere Judizialeko Lege Organikoak jasotako ezgaitasun kausarenbat ez izatea.
- Funtzio Judizialak betetzea galeraz dezakeen bateraezintasun kausarik ez izatea, merkatal eta lanbide jardueran aritu izatea izan ezik. Hurrengoak dira bateraezintasun egoerak:
  - Botere judizialetik kanpo geratzen den edozein motako jurisdikzioaren erabilera.
  - Herriak aukeratu edo politikoki izendatutako karguak, Estatuak, Erkidego Autonomoa edo Herri mailakoa, edo hauetakoren baten menpe dagoen erakundea.
  - Auzitegi edo Epaitegi baten menpe lanean egotea.
  - Edozein eratako aholkularitza juridikoa, ordaindua nahiz ordaindu gabe.

Anoetan, 2017ko maiatzaren 4an.

Alkatea.

Pedro M<sup>o</sup> Estanga Lasa.

